

XXI. IGANDEA URTEAN ZEHAR (B)

Otoitza

Jauna, zeure fededunen bihotzak gogo bateko egin dituzu;
 egizu, zeure herriak maita dezala Zuk agindua
 eta itxaron Zuk hitzemaña;
 mundu aldakor honetan dauden bitartean
 gure bihotzek sendo iraun dezaten
 egiazko zoriona dagoen lekuan.
 Zur Seme Jesu Kristo.

I. IRAKURGAIA: Jos 24, 1-2a. 15-17. 18b

*Jauna zerbitzatuko dugu,
 Hura da eta gure Jaungoikoa.*

Josueren liburutik

Egun haietan, bildu zituen Josuek Israelgo leinu guztiak Sikenen, deitu zituen Israelgo zahar, nagusi, epaile eta arduradun guztiak, Jaunaren aurrean aurkeztu zitezten, eta Josue honela mintzatu zitzaion herri osoari: «Jauna zerbitzatzea gaizki iruditzen bazaizue, aukeratu gaur zuek, nor zerbitzatu: zuen arbasoek ibaiaz beste aldean zerbitzatutako jainkoak, ala, amortarren lurtean zaudetenez gero, amortarren jainkoak; nik ete nire seme-alabek Jauna zerbitzatuko dugu». Herriak erantzun zuen: «Urrun guregandik Jauna uztea, beste jainkoak zerbitzatzeko! Jauna, gure Jaungoikoa, baita Egiptoko morrontzatik gu eta gure arbasoak atera gintuena, gure begietan halako mirari handiak egin zituena, eta ibili garen bide guztietan eta igaro ditugun herri guztietan zaindu gaituena. Guk, beraz, Jauna zerbitzatuko dugu, Hura da eta gure Jaungoikoa».

ERANTZUN SALMOA: Sal 33, 2-3. 16-17. 18-19. 20-21. 22-23

**R/. Dasta ezazue eta ikus
 zein samur den Jauna.**

Bedeinka dezadan aldi oro Jauna,
 nire ahoan beti Haren gorespena.
 Gailendu bekit bihotza Jaunarekin,
 poztu bitez apalak hori entzutearekin. R/.

Zintzoengana daude Jaunaren begiak,
 eta haien oihura Haren belarriak.
 Gaizkileen aurka Jaunaren aurpegia,
 gal dadin lurtean haien oroipena. R/.

Zintzoek deie egin zioten, eta Jaunak entzun,
 estualdi guztitik atera zituen bere eskuz.
 Hurbil dute Jauna bihotzurratuek,
 salbatzen ditu barrenez atsekabetuak. R/.

Zintzoaren gaitzak asko dira,
baina denetatik Jaunak atera.
Haren hezur guztiak ditu zaintzen,
bat bakarrik ez zaio hausten. R/.

Gaitzak heriotzara darama gaiztoa;
zintzoa begitan duenak hartuko du zigorra.
Jaunak askatzen ditu bere morroiak,
ez du izango zigorrik Harengana ihes doanak. R/.

II. IRAKURGAIA: Ef 5, 21-32

*Misterio handia da hau,
Kristori eta Elizari buruz.*

San Paulo Apostoluak Efesotarrei

Senideok: Izan zaitezte elkarren menpeko, Kristoren beldurrean. Emazteak egon bitez beren senarren mende, Jaunaren mende bezala: senarra baita emaztearen buru, Kristo Elizaren buru den bezala, eta Bera gorputzaren Salbatzaile. Beraz, Eliza Kristori menperaturik dagokion bezala, horrela emazteak ere beren senarrei, gauza guztietan.

Senarrok, maita itzazue zeuen emazteak, Kristok Eliza maitatzen duen bezala; Hark bere burua Elizarengatik eman zuen, horrela santu egiteko, urezko Bataioz eta hitzaz garbiturik, distiratsu aurkezteko Eliza bere aurrean, zikin eta zimurrik edo ezer horrelakorik gabe, santu eta errugabe baizik.

Senarrek ere hala maitatu behar dituzte beren emazteak, beren gorputz dituztenez. Emaztea maitatzen duenak bere burua maitatzen du. Inork ez dio inoiz bere gorputzari gorrotorik izan; baizik eta jana eman eta zaindu egiten du, Kristok bere Eliza bezala; bere gorputzaren atal baikaitu.

«Horregatik gizonak aitamak utziko ditu,
ete bere emaztearekin elkartuko da;
eta biak haragi bat izango dira».

Misterio handia da hau: Kristori eta Elizari buruz esaten dut.

EBANJELIOA: Jn 6, 60-69

Aleluia: Ik. Jn 6, 63b. 68b

R/. Aleluia.

V/. Zure hitzak, Jauna, espiritu eta bizi dira;
Zuk daukazazu betiko biziaren hitzak. R/.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik

Aldi hartan, Jesusen ikasleetako askok honela zioen: «Gogorra da mintzaera hau. Nork adi dezake?»

Jesusek, bere baitan ezaguturik, ikasleak Berarengatik marmarrean ari zirela, esan zien: «Erorbide al zaizue hori? Eta Gizonaren Semea, lehen zegoen tokira igotzen ikusiko bazenute, orduan zer? Espiritua da biziemailea, haragia ez da ezertarako. Nik esan dizkizuedan hitzak, espiritu eta bizi dira. Hala ere, badira zuen artean, sinesten ez duten batzuk». Iza

hasieratik, nortzuk ziren sinesten ez zutenak, eta nor zen Bera salduko zuena. Eta esan zien: «Horregatik esan dizuet, inor ez datorkeela Niregana, Aitak hori ematen ez badio». Orduetik, Haren ikasle askok atzera egin zuen, eta ez zuen Harekin ibili nahi. Jesusek orduan honela esan zien Hamabiei: «Zuek ere alde egin nahi al duzue?» Simon Pedrok erantzun zion: «Jauna, norengana joango gara? Zuk dauzkazu betiko biziaren hitzak. Guk sinesten dugu eta badakigu, Zu zarela Jaungoikoaren Santua».

Oparigaien gainekoa

Kristoren opari bakarraren bidez, Jauna,
zeure seme-alaben herri egin gaituzu;
emaiozu zeure Elizari batasuna eta bakea.
Jesu Kristo.

Jaunartze ondorengoa

Eraman ezazu bere betera, Jauna,
zeure errukizko salbamena;
eta egizu, Zuk lagundurik,
gauza guztietan zure gogoko izan gaitzela.
Jesu Kristo.